



## 4/2024 UDALEKO OSOKO BILKURA

### 2024KO MARTXOAREN 21EAN EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### BERTARATUTAKOAK:

##### ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

##### ZINEGOTZIAK:

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)

Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)

Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)

Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)

Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)

Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)

Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)

Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea)

Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

##### IDAZKARIA:

Erika Sagarzazu Camino

##### EZ BERTARATUTAKOAK:

Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2024ko martxoaren 21ean, arratsaldeko 19:00etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ezohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

Alkateak hitza hartu du eta ezohiko osoko bilkura honi ohiko bilkura bati dagokion tratamendua emateko arrazoiak azaldu ditu. Izan ere, azken asteartea (Osoko Bilkuraren ohiko bilkurak egiteko erabakitako eguna) martxoaren 26an erortzen denez eta, horregatik, Udaltzako kide asko, Idazkaria barne, Aste Santuko oporretan egongo direnez, Udaltzako osatzen duten talde politikoaren artean adostu da Osoko Bilkura aurreratzea eta horri ohiko bilkura bati dagokion tratamendua ematea, korporazioko kideen kontrol-eskubideak eta -eginkizunak bermatuta gera daitezzen, egindako dekretuen eta Alkatetzaren ebazpenen bidez altxatutako eragozpen-txostenen kontu emanez, mozioak sartuz eta galde-erregutarako txanda emanez.

Behin aurrekoa azalduta eta Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udaltzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

## I. EBAZPENAK

### 1.- AZKEN BI BILKUREI DAGOZKIEN AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA.



2024ko otsailaren 27an egindako Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu da; aitzitik, 2024ko martxoaren 21eko goizean egindako Osoko Bilkuraren aktari dagokionez, hala badagokio, datorren Osoko Bilkuran onartzea akordatu da.

## 2.- TRANSFERENTZIA BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2024-KALD-000002-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2024-KALD-000002-00 espedienteari hasiera ematea agintzen zuen 2024ko martxoaren 12ko probidentziaren edukia azaldu du.

Alkatetzak egindako kreditu transferentzien proposamena ondorengoa da:

### Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0000.601.153.20.01 2024	BIDE PUBLIKOEN AZPIEG. ETA URBANIZAZIOA	43.000,00	25.000,00	18.000,00
	GUZTIRA	43.000,00	25.000,00	18.000,00

### Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0000.227.151.00.07 2024	AZTERKETAK ETA LAN TEKNIKOAK. HIRIGINTZA	30.000,00	25.000,00	55.000,00
	GUZTIRA	30.000,00	25.000,00	55.000,00

Idazkari Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 29. artikuluan ezarritakoarekin, baita Aurrekontua Gauzatzeko urteko Arauekin ere.

Ondoren, EAJ taldeko bozeramaileak, Nuria Carbonell Mirandak, hitza hartu du eta 1. kreditu-aldaketaren espedienteari buruzko dokumentazioa emateko eskatu du. Horren aurrean, Idazkariak eskaera onartu dio, eta, zinegotziak planteatzen duen zalantza ikusita, azaldu dio 1. eta 3. kreditu-aldaketa espedienteak Alkatetzaren dekretu



bidez ebatzi zirela, hala zegokielako, eta, 2.aren eta 4.aren ebazpena, berriz, Osoko Bilkurari dagozkiola, lehen aipatutako araudiaren arabera.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

### EBAZPENA

**LEHENENGOA.** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin.

**BIGARRENA.** Kontuhartzaitzak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa delako.

### 3.- TRANSFERENTZIA BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2024-KALD-000004-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2024-KALD-000004-00 espedienteari hasiera ematea agintzen zuen 2024ko martxoaren 13ko probidentziaren edukia azaldu du.

Alkatetzak egindako kreditu transferentzien proposamena ondorengoa da:

#### Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0000.480.230.00.00 2024	BESTELAKO DIRULAGUNTZAK	8.500,00	3.130,00	5.370,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>8.500,00</b>	<b>3.130,00</b>	<b>5.370,00</b>

#### Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0000.481.230.10.01 2024	DIRULAGUNTZA. TOLOSALDEA SAHARAREKIN	1.370,00	3.130,00	4.500,00



	GUZTIRA	1.370,00	3.130,00	4.500,00
--	---------	----------	----------	----------

Idazkari Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 29. artikuluan ezarritakoarekin, baita Aurrekontua Gauzatzeko urteko Arauekin ere.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

### EBAZPENA

**LEHENENGOA.** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin.

**BIGARRENA.** Kontuhartzailetzak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa delako.

#### 4.- LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta lanpostuen zerrenda aldatzeko espedienteari hasiera ematea agintzen zuen 2024ko martxoaren 11ko probidentziaren edukia azaldu du.

Aurrekariari dagokionez, 2024ko otsailaren 5ean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2024ko plantilla organikoaren eta lanpostuen zerrendaren behin betiko onespena argitaratu zen. 2024ko otsailaren 27an eta 314. sarrera-erregistro zenbakiarekin, Eusko Jaurlaritzaren idatzi bat jaso zuen Udalak, zeinetan adierazten zen Udaleko Lanpostuen zerrenda ez zela zuzena eskatutako titulazioei eta lanpostuak betetzeko sistemari dagokionez eta zuzentzeko eskaria egiten zen. Eskari horren gainean, martxoaren 11n, AOTak txostena egin zuen eta, horren gainean, Idazkari Kontu-hartzaileak adostasun-oharra. Halaber, 2024ko martxoaren 14an, Anoetako Udaleko Negoziazio Mahaiak, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen aho batez:

“... ”

**BAKARRA.** Onartzea Lanpostuen zerrendaren aldaketa, Administrazio Orokorreko Teknikariak bere 2024ko martxoaren 11ko proposamen-txostenean jasotako edukiarekin.

“... ”

Horiek horrela, Alkateak ondorengo proposatzen du:

LEHENENGOA. 2024ko Lanpostuen zerrenda aldatzea hurrengo titulazioak eskatzeko:

- Idazkari-kontuhartzailea: Doktore, lizentziadun, ingeniari edo arkitekto, edo enplegu publikora iristeko ondorioetarako gradu baliokidea.

- Administrazio Orokorreko Teknikaria: Zuzenbide, Politika, Ekonomia edo Enpresa Zientzietako graduak, Merkataritza Intendentea edo Aktuarioa, edo baliokideak.
- Aparejadorea: Arkitektura Teknikoko gradua edo baliokidea.
- Gizarte-langilea: Gizarte Zerbitzueta graduak edo baliokidea.
- Ingurumen-teknikaria: Ingurumen Zientziak, Biologia, Kimika, Geologia, Ingurumenarekin lotutako ingeniari-graduak edo baliokideak.
- Euskararen normalizaio-teknikaria: Euskal filologia gradua edo baliokidea.
- Kultura-dinamizatzailea: Kultur kudeaketa gradua edota Arteen eta Humanitateen adarreko gradua edo baliokidea.
- C1: Batxiler-tituluak, Lanbide Heziketako erdi-mailako heziketa-zikloak gainditzeagatik lortutako teknikari-tituluak eta horien baliokideak.
- C2: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradu-tituluak eta oinarrizko lanbide-tituluak.

BIGARRENA. Betetzeko sisteman lehiaketa-oposizioa aurreikusten duten lanpostu guztietan, lehiaketa sistema ezartzea.

HIRUGARRENA. Idazkari Kontu-hartzailearen taldea A1era aldatzea.

LAUGARRENA. Lanpostuen Zerrenda Eranskinean bezala uztea.

## ERANSKINA

### A) *Karrerako funtzionarioentzat erresebatutako lanpostuak*

DEITURA	LANP. KOPU.	ORDAIN OSAGAIK		TALDEA	ESKALA	AZPI ESKALA	HIZKUNTZA ESKAK.		BET. ERA	E.TIT	DED %	BALDIN. ESPEZIF
		DESTINU	ESPEZIF				KOEF	DER.DAT				
Idazkari Kontu hartz.	1	26	22.518,16	A1	GN	IK	4	94.XII.31	L	1	100	
Administr. Orok. Teknikaria	1	21	22.470,28	A1	AO	T	4	06.II.16	L	2	100	
Aparejadorea	1	19	24.202,50	A2	AB	TB	3	02.XII.31	L	3	100	
Gizarte langilea	1	17	15.669,08	A2	AB	TB	3	92.XII.31	L	4	100	
Ingurumen alorr. Tek.	1	17	12.769,78	A2	AB	TB	3	23.XII.31	L	5	100	
Hizkuntza Nor.tek	1	17	12.163,90	A2	AB	TB	4TG	---	L	6	60	
Kultur dinamizat.	1	17	10.773,56	A2	AB	TB	3	00.XII.31	L	7	100	
Administraria	1	14	17.394,72	C1	AO	AA	3	94.XII.31	L	8	100	
Administr. Lagun.	3	11	16.044,56	C2	AO	AL	2	92.XII.31	L	9	100	



ANOETAKO

Udako lanpostu ardurad	1	14	12.727,26	C1	AB	AA	3	92.XII.31	L	8	70	
Zerb. Anitz. Ofiziala	1	12	19.897,22	C2	AB	ZB	2	94.XII.31	L	9	100	% 15

**B) Lan hitzarmendun langileentzat erresebatutako lanpostuak**

Lanpostua	LANP. KOPURUA	ORDAIN OSAGAIK		TALDEA	HIZKUNTZA ESKAK.		BETERA	E. Tit	DED.%
		DESTINU OSAG.	OSAG. ESPEZIF		KOEF	DER. DATA			
Kale garbitzailea	1	8	14.489,86	E	1	09.XII.31	L	5	100
Eraikinen garbitzailea	1	8	14.489,86	E	1	92.XI.31	L	5	100
Eraikinen garbitzailea	1	8	14.489,86	E	1	08.XII.31	L	5	100
Zerbitzu anitzetako peoia	1	8	14.489,86	E	1	00.XII.31	L	5	100
Brigadako peoia	2	8	14.489,86	E	1	22.V.30	L	5	100
Euskara Teknikaria	1	17	7.438,70	A2	Desagertzeaz				

**Klabeak**

Taldea edo eskala:	Azpieskala:	Hornidura mota:
GN: Gaiakuntza Nazionala. AO: Administrazio Orokorra. AB: Administrazio Berezia.	IK: Idazkari Kontu Hartzailea. T: Teknikaria. TB: Administrazio Bereziko Teknikaria. AA: Administraria. AL: Administrazio laguntzailea. ZB: Zerbitzu bereziak.	L: Lehiaketa. LO: Lehiaketa oposaketa.
<p>Eskatutako titulua:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Doktore, lizentziadun, ingeniari edo arkitekto, edo enplegu publikora iristeko ondorioetarako gradu baliokidea.</li> <li>Zuzenbidean, Politika, Ekonomia edo Enpresa Zientzietako gradua, Merkataritza Intendentea edo Aktuarioa, edo baliokideak.</li> <li>Arkitektura Teknikoko gradua edo baliokidea.</li> <li>Gizarte Zerbitzuetako gradua edo baliokidea.</li> <li>Ingurumen Zientziak, Biologia, Kimika, Geologia, Ingurumenarekin lotutako ingeniari-gradua edo baliokideak.</li> <li>Euskeraren normalizaio-teknikaria: Euskal filologia gradua edo baliokidea.</li> <li>Kultura-dinamizatzailea: Kultur kudeaketa gradua edota Arteen eta Humanitateen adarreko gradua edo baliokideak.</li> <li>Batxilertitulua, Lanbide Heziketako erdi-mailako heziketa-zikloak gainditzeagatik lortutako teknikari-titulua edo horien baliokideak.</li> <li>Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradu-titulua edo oinarriko lanbide-titulua.</li> </ol>		

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa aztertuta, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

### EBAZPENA

**LEHENENGOA.** Onartzea Lanpostuen zerrendaren gaineko aldaketa proposamena, jarraian adierazten den moduan:

#### A) *Karrerako funtzionarioentzat erresebatutako lanpostuak*

DEITURA	LANP. KOPU.	ORDAIN OSAGAIK		TALDEA	ESKALA	AZPI ESKALA	HIZKUNTZA ESKAK.		BET. ERA	E.TIT	DED %	BALDIN. ESPEZIF
		DESTINU	ESPEZIF				KOEF	DER.DAT				
Idazkari Kontu hartz.	1	26	22.518,16	A1	GN	IK	4	94.XII.31	L	1	100	
Administr. Orok. Teknikaria	1	21	22.470,28	A1	AO	T	4	06.II.16	L	2	100	
Aparejadorea	1	19	24.202,50	A2	AB	TB	3	02.XII.31	L	3	100	
Gizarte langilea	1	17	15.669,08	A2	AB	TB	3	92.XII.31	L	4	100	
Ingurumen alorr. Tek.	1	17	12.769,78	A2	AB	TB	3	23.XII.31	L	5	100	
Hizkuntza Nor.tek	1	17	12.163,90	A2	AB	TB	4TG	---	L	6	60	
Kultur dinamizat.	1	17	10.773,56	A2	AB	TB	3	00.XII.31	L	7	100	
Administraria	1	14	17.394,72	C1	AO	AA	3	94.XII.31	L	8	100	
Administr. Lagun.	3	11	16.044,56	C2	AO	AL	2	92.XII.31	L	9	100	
Liburutegi ardurad	1	14	12.727,26	C1	AB	AA	3	92.XII.31	L	8	70	
Zerb. Anitz. Ofiziala	1	12	19.897,22	C2	AB	ZB	2	94.XII.31	L	9	100	% 15

#### B) *Lan hitzarmendun langileentzat erresebatutako lanpostuak*

Lanpostua	LANP. KOPURUA	ORDAIN OSAGAIK		TALDEA	HIZKUNTZA ESKAK.		BETERA	E. Tit	DED.%
		DESTINU	OSAG.		KOEF	DER. DATA			
		OSAG.	ESPEZIF						
Kale garbitzailea	1	8	14.489,86	E	1	09.XII.31	L	10	100
Eraikinen garbitzailea	1	8	14.489,86	E	1	92.XI.31	L	10	100
Eraikinen garbitzailea	1	8	14.489,86	E	1	08.XII.31	L	10	100



ANOETAKO  
UDALA

Zerbitzu anitzetako peoia	1	8	14.489,86	E	I	00.XII.31	L	10	100
Brigadako peoia	2	8	14.489,86	E	I	22.V.30	L	10	100
Euskara Teknikaria	1	17	7.438,70	A2	Desagertzear				

Klabeak		
Taldea edo eskala:	Azpieskala:	Hornidura mota:
GN: Gaikuntza Nazionala. AO: Administrazio Orokorra. AB: Administrario Berezia.	IK: Idazkari Kontu Hartzailea. T: Teknikaria. TB: Administrazio Bereziko Teknikaria. AA: Administraria. AL: Administrari laguntzailea. ZB: Zerbitzu bereziak.	L: Lehiaketa. LO: Lehiaketa oposaketa.
<p>Eskatutako titulua:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Doktore, lizentziadun, ingeniari edo arkitekto, edo enplegu publikora iristeko ondorioetarako gradu baliokidea.</li> <li>Zuzenbidean, Politika, Ekonomia edo Enpresa Zientzietako gradua, Merkataritza Intendentea edo Aktuarioa, edo baliokideak.</li> <li>Arkitektura Teknikoko gradua edo baliokidea.</li> <li>Gizarte Zerbitzuetako gradua edo baliokidea.</li> <li>Ingurumen Zientziak, Biologia, Kimika, Geologia, Ingurumenarekin lotutako ingeniaritza gradua edo baliokideak.</li> <li>Euskeraren normalizaio-teknikaria: Euskal filologia gradua edo baliokidea.</li> <li>Kultura-dinamizatzailea: Kultur kudeaketa gradua edota Arteen eta Humanitateen adarreko gradua edo baliokideak.</li> <li>Batxiler-titulua, Lanbide Heziketako erdi-mailako heziketa-zikloak gainditzeagatik lortutako teknikari-titulua eta horien baliokideak.</li> <li>Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eta oinarrizko lanbide-titulua.</li> <li>Eskola agiria.</li> </ol>		

**BIGARRENA.** Lanpostuen zerrendaren aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea guztiek jakin dezaten, egintza hau bestelako tramiterik gabe irmoa eta exekutiboa delako.

**HIRUGARRENA.** Jakinaraztea hartutako erabakia Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari.

## 5.- “LASARBE” A-14 SEKTOREAREN PLAN PARTZIALA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du, 2024ko martxoaren 18an, 381. sarrera-erregistro zenbakiarekin, Hirigrama Koop. Elk. Txikiak A-14 Lasarbe sektoreko plan partzialaren 2. aldaketarako dokumentazioa sartu zuela Udaletxeko erregistroan. Dokumentazio horretan Memoria, Araudia eta Planoak izeneko dokumentuak aurkeztu





ANOETAKO  
UDALA

dira, bakoitza euskarazko eta gaztelerazko bertsioan. Halaber, 2024ko martxoaren 15ean, Gilen Txintxurreta Beitia arkitektoak proposatutako aldaketen aldeko txostena egin du. Txosten horren ondorioetan jasotzen denez, Lasarbe A-1º4 Sektoreko Plan Partzialaren 2. aldaketak oinarritzko dokumentazio-baldintzak betetzen ditu, ez du Egitura Erregimena aldatzen, eta teknikoki justifikatzen ditu Lasarbe errekaren ondoan aisialdirako espazio publiko berdea jartzeko helbururako planteatutako aldaketa xehatuak, eta, beraz, Udalbatzari proposatzen zaio espedientearekin jarraitzea.

EAJ taldeko bozeramaileak, Nuria Carbonell Mirandak, hitza hartu du eta Plan Partziala aldatzeko jarraitu beharreko prozedurari buruz galdetu du, zehazki, ea txosten juridikorik beharrezkoa den galdetu du. Alkateak orain arte jarraitutako prozedurari buruzko azalpenak eman dizkio, baita hemendik aurrera jarraitu beharrekoari buruzkoak ere. Zinegotziak orain arteko txosten juridikoak eskatu ditu.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa aztertuta, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

## **EBAZPENA**

**LEHENENGOA.** Hasiera batean onestea A-14 Lasarbe sektoreko plan partzialaren 2. aldaketa puntuala.

**BIGARRENA.** Jendaurrean jartzea espedientea, hogeitasei eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan zabalkunderik handiena duen egunkarietako batean argitaratuko diren ediktuen bidez, eta azken argitalpenetik aurrera. Iragarkia Udaletxeko Iragarki Oholean eta [www.anoeta.eus](http://www.anoeta.eus) web orrian ere argitaratuko da.

Epe horretan, espedientea Udaletxeko Bulego Orokorretan egongo da ikusgai, jendaurreko ordutegian.

## **II. GOBERNU ORGANOEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA**

### **ALKATETZA**

#### **6.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Alkateak 2024ko otsailaren 16tik martxoaren 15era bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman du, eta zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **ANTOLAKUNTZA**



## 7.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman direnen artekoak):

125. DEKRETUA		
2024.02.26.		
<b>Hartzekodunak</b>	<b>IFZ / IFK</b>	
ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA	A20145496	
<b>Prozedura</b>		
Otsaileko Berriak Berri maketatzeko eta inprimatzeko zerbitzua		
<b>Aurrekontu zenbakia</b>	<b>Bidalketa data</b>	<b>Zenbatekoa (BEZ barne)</b>
42394	2024.02.23.	1.029,6 €

**Laburpena**  
Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko otsailaren 26an egindako eragozpenezko txostena, besteak beste, ondorengoa adieraziz:

“Berriak Berri udal aldizkaria maketatzeko eta inprimatzeko zerbitzu-kontratua gutxienez 2018tik kontratatzen etorri da eta, gainera, enpresa berarekin, hainbat kontratu txiki kateatuz. Hortaz, argi dago Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarritzko printzipioak urratu dituela; izan ere, urtez urte enpresa berarekin kontratatu du hornidura berdina, kontratu txikien berezkoa den zuzeneko esleipena erabiliz, eta publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe. Berritoki gogorarazten da SPKLren 29.8 artikuluan jasotakoa (“*Los contratos menores definidos en el apartado primero del artículo 118 no podrán tener una duración superior a un año ni ser objeto de prórroga*”), baita Kontratazio Publikoaren Aholku-Batzordeak 2020ko martxoaren 5ean emandako 1/2020 Gomendioaren c) letran jasotakoa ere (“*Gauzak horrela, segidako traktuko kontratuak, edo guztira hamabi hilabete baino gehiagoko iraupena duten aldizkako errepikapeneko kontratuak, nahiz eta batzuetan zenbatekoa oso txikiak izan, ez dira kontratu txikitzat hartuko segidako aurrekontu-ekitaldietan xede berarekin esleitu badiere ere*”).

Gainera, kontratuaren espedientean ez da justifikatzen kontratuarekin ase beharreko beharra, ezta baliabide propio nahikorik ez izatea ere. Horrek guztiak urratzen du bai SPKLAN bai 1/2021 Jarraibidean xedatutakoa.

Ondorioz, goian adierazitako kontratazio-proposamena ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txiki buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazio Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIREsCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak urteroko Berriak Berri udal aldizkaria maketatzeko eta inprimatzeko zerbitzu-kontratua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu beharko luke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera”.

137. DEKRETUA	
2024.02.29.	
<b>Hartzekodunak</b>	<b>IFZ / IFK</b>
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCIArena	72445464H
<b>ADO</b>	<b>Zenbatekoa</b>
“P” fasea	1.977,80 €



### Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garciarenaren nomina: 2024ko otsaileko nomina

### Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko otsailaren 29an eragozpeneko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpeneko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengoa adierazten den:

“Gaur egun Jose Miguel Otaño Garciarenak duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garciarena urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkutututako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garciarenak betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin”.

### 136. DEKRETUA

2024.02.29.

<b>Hartzekodunak</b>	<b>IFZ / IFK</b>
MADDI SARASOLA EIZMENDI	44332401Q
<b>ADO</b>	<b>Zenbatekoa</b>
“P” fasea	2.414,66 €

### Kontzeptua

Maddi Sarasola Eizmendiren nomina: 2024ko otsaileko nomina

### Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko otsailaren 29an eragozpeneko txostena egin zuen 2023ko ekainaren 16an egindako eragozpeneko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengoa adierazten den:

“I. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzen duen eta programa-kontratuaren luzapena ahalbidetzen duen Funtzio Publikoaren Lege aplikagarriak ezean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.1.c) artikuluan jasotako luzapen aukera ez da aplikagarria. II. Programa-kontratuaren gehieneko iraupena hiru urtekoa da. III. Maddi Sarasola Eizmendiren programa-kontratuak aurreko epea gainditu du eta, beraz, gaurko egunetik aurrerako egoera eta horretarako Alkateak egindako eginbideak erabat deusezak dira. IV. Gehieneko iraupen-epea ez betetzeagatik ordaindu beharreko kalte-ordainaren gaineko erantzukizuna Alkatearena da; izan ere, Alkatea da, jakinda araudia guztiz urratzen duela, Maddi Sarasola Eizmendiren kontratua luzatzea erabaki duena”. Hori dela eta, 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, hirugarren paragrafoaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari Kontu-hartzaile honek gastu-espedientearen izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.

### 138. DEKRETUA

2023.03.04.

<b>Hartzekodunak</b>	<b>IFZ / IFK</b>
SECURITAS DIRECT ESPAÑA, S.A.U.	A26106013

### Prozedura

Alarma

<b>Faktura zenbakia</b>	<b>Bidalketa data</b>	<b>Zenbatekoa (BEZ barne)</b>
2401C00379923	2024.01.01.	306,15 €

### Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko martxoaren 1ean egindako eragozpeneko txostena.

Eragozpenak:

- Kontratu txikiek ezin dute urtebeteko iraupena gainditu, eta ezin dira erabili errepikatzen diren prestazioak kontratatzeko.
- Ez dago fakturari estaldura juridikorik ematen dion dokumenturik, ezta espedienterik ere. Securitas Direct enpresarekin formalizatutako kontratua (legez kanpoko, ondoren azalduko denaren arabera) 2021eko abenduaren 31n amaitu zen; harrezkerotik Anoetako Udalak Securitas Direct enpresaren zerbitzua jasotzen jarraitu du, inoialako estaldura juridikorik gabe.
- Urtez urte enpresa berarekin kontratatu den zerbitzua da, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe.
- Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarrizko printzipioak urratu ditu, goian adierazitako gastua ez baita oinarrizten gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIREsCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.
- Anoetako Udalak alarma-mantenu zerbitzua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar izango luke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.

140. DEKRETUA

2024.03.04.

<b>Hartzekodunak</b>		<b>IFZ / IFK</b>
RICOH ESPAÑA, SLU		B82080177
<b>Prozedura</b>		
Fotokopien zerbitzu-kontratua		
<b>Faktura zenbakia</b>	<b>Bidalketa data</b>	<b>Zenbatekoa (BEZ barne)</b>
844518055	2024.02.07.	311,19 €

**Laburpena**

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko martxoaren leian egindako eragozpeneko txostena.

- Inprimagailuen hornidura Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratazioen Zentralaren bidez dugu kontratatuta, 2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L enpresarekin, atxikituta baikaude akordio markora. Hortaz, ezin dugu xede berdina beste enpresa batekin kontratatu.
- Fotokopien zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko kontratua baita.

141. DEKRETUA

2024.03.04

<b>Hartzekodunak</b>		<b>IFZ / IFK</b>
SARENET, SAU		A48714489
<b>Prozedura</b>		
Serbidorearen segurtasun kopien mantenua		
<b>Faktura zenbakia</b>	<b>Bidalketa data</b>	<b>Zenbatekoa (BEZ barne)</b>
P24012330	2024.01.02.	97,31 €
P24022367	2024.02.01.	97,31 €

**Laburpena**

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko martxoaren leian egindako eragozpeneko txostena, besteak beste,

ondorengoa adieraziz:

- Orain arte Sarnet, S.A.U. enpresak helarazitako fakturretan “telefono zenbakien eramangarrtasuna” kontzeptua jasotzen zen; 2023ko lehenengo fakturan kontzeptuz aldatu da, “Serbidorearen segurtasun kopien mantenua” kontzeptua erabilita. Nahiz eta kontzeptua desberdina izan, zerbitzuak bera izaten jarraitzen du, zenbateko berberagatik.
- Ordainketa-agindua nuloa da, gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedura ez delako legearen arabera;
- Udaleko telefonozko komunikazioak eta, horren barne, telefono zenbakien eramangarrtasuna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralaren bidez kontratatua dago;
- Goian adierazitako zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako;
- Gainera, ez da SARENET, S.A.U. enpresaren alde eta xede berdinerako (telefono zenbakien eramangarrtasuna) egiten den lehena, baizik eta lehenagoko beste batzuk ere badaudela: 2020ko maiatzaren 21eko dekretua, 2019ko otsailaren 6koa eta 2018ko martxoaren 8koa.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira, galderarik egin gabe.

## MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

### **8.- ANOETAKO UDALA YREIFIA DAIRAREKIN SENIDETZEKO PROPOSAMENA.**

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du, 2024ko martxoaren 11n eta 350. sarrera-erregistro zenbakiarekin, Tolosaldea Sahararekin Elkarteak Udaletxeko erregistroan aurkeztutako senidetze eskaeraren edukia. Bertan adierazten den legez, Tolosaldea Sahararekin elkarteak Tolosaldeako udalekin bilerak egiten jardun du azkenaldian, besteak beste, senidetzee gaia landuz. Dagoeneko Tolosaldeako 28 herrietatik 7 dira Mendebaldeko Saharako daira (herri) batekin gaur egun senidetuak daudenak eta, kopuru hori bikoizteko helburuari jarraituz, Tolosaldea Sahararekin elkarteak eskaera egiten dio Anoetako Udalari Yreifia dairarekin senidetu dadin. Alkateak zehazten du honako puntu hau ez dela azken proposamen bat, hasierako mozio antzeko bat baizik, hots, aurrerabide bat senidetzeko bideak irekitzeko.

Alkatearen azalpenak bukatutakoan, EAJ taldeko bozeramaileak, Nuria Carbonell Mirandak, hitza hartu du eta adierazi du zehaztasuna falta zaiola proposamenari, izan ere, senidetze hori arautzen duen hitzarmenik, kontraturik edo bestelako tresna juridikorik ezean, ezin dira ezagutu ekarri ditzakeen ondorio ekonomiko, juridiko eta bestelakoak.

Aurrekoak entzunda, Udalbatzako kide guztiak ados agertu dira senidetzearen ideiarekin, baina guztiak bat datoz oraindik inolako konpromisorik hartu ezin dutelako ideiarekin, gutxienez Tolosaldea Sahararekin Elkarteak senidetze-proposamen formal eta zehatzen bat aurkeztu eta horren gainean akordioaren bat hartu arte.

## GALDE-ERREGUAK



## 9.- GALDE-ERREGUAK.

Ez da galde-erregurik egon.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:21etan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

---

Erika Sagarzazu Camino